

duta zazpi urterako ixentau euskun tokian bertan, baña oingoan txarto urten deutse, bederatzitatik iru baño biar ez, sei alpefik.

Eskontzak.

Egunian ezkondu dira gure lagun onak diran Apraiz'tar Markelin eta E. A. Batzako dan Hormaetze'tar Pantsezke' Zorionak.

Jayotza.

Gure lagun eta abertzale onak diran Apraiz'tar Andoni eta Malona'tar Juste'k semetxu bat izan dabe, eta Josu Mirena euzkel izenagaz ugatzau dabe. Baña Bastefetxea'tar Atanasi'ren emaztiak bere, beste semetxu bat ekafi dau. Ugutzan Sabin euzkel ixena esafi deutse. Zorionak danori.

URITAR BAT

[1] Ongi etofi «Urtar bat» eta jafatu safi safi idazten eta zabaldu EKIN.

Ellez - jantzi ta urregintza

A. Rui-Wamba

Elizak jasteko biar dan gustia emen aurkituko dozue ona ta merke

Plaza Nueva, 10 Ufutzikiña 14.238. BILBAO

Mañari.

Bederatziurena.

Garbitokiko arimen aldez bederatzifena, igaroriko larunbatian asi zan. Iluntjetan egiten da.

Erijotza.

Lengo astian il zan Donostia'n, Zugatzagotia'tar Imanole anderea. (Emeko «Lustefijo»ko Paulotxu zanaren alabia). Jaunak zeruan euki begi.

Sendijari atsekabian laguntzen dautso.

Juan-etorijak.

—Emen egun batzuk igarota, astelenian juan zan Bilbao'ra Ayartza-guena'tar Alexe neskatiñ begikua.

—Santurtze'tik etofi ziran Bartzena'tar Agapita, Amesti'tar Imanole ta Kapanaga'tar Bitor eta Pantzeska mutikuak.

—Gernika'tik, Rui-Wamba'tar Pilomen eta semia.

—Igandian agurtu gendun, Zugatzaga'tar Iñaki abertzale zintzua, («Algoñi» zanaren anaya).

Lugitiñak

Ira-ondakiñak batzen eta gaztañak etxeraten diardube. Baña, arto-babak etxeraten be. Danetan be uegetasunik eztago. Gaztaña, diñueñez, igazko laurena; ta geyena txikola.

Aurtengo neguban, beste urtietan lez, ipuñak kontauagaz, gaztaña eder asko ezingo dogu jan. Datofen urtari edo, itxaron biar. Ufengo bertsuak, zer edo zer badiño beintzat:

«Aurten gitxi ufengoan asko, Jaunak emongo yok gauzarik asko».

Irakasliaren alde.

Arana eta Goiri'tar Sabin'an eriotz-urteufena ganian dogula gomutan dogu. Ta, enparau efijetan lez, emen be, abertzaliok aginduta, geure Irakasle matiarene aldez mesa bat emongo da. Noz ixango dan, U. B. B'ko gixon zintzuak esango dauskue.

Mendigoxaliak.

Igandian, ainbat mendigoxale igarota ziran mendijetan egun edefa igarota. Ta, eurentariko batzuk, ingi-aberkoayak zabaldu ebezan emeko gastien artian. Gure mendigoxalien lana jlanaren edefa! ¡Auffera olantxe!

Elizkixuna.

Igandian, Otoitz - Bialguntzakuak jleroko Jaunartzia ta elizkixuna euki gendun.

MAÑARIKO

Albiz-Mendata.

Amabiko Bateri.

Urilen 28'ko zure idazkija irakufi dot, irakufi ostian zeozer esan gura neuskizu, ta emen nator zeugana.

Udabafijan lorak agertuten dira gure begijen aufian jantzi polit apaingafiakin. atsegin izaten jakuzala alde gustijetan.

Ibai ondokuak legortigaitik ez dauke bildufik; mendi zelaietakuak, bildur izaten dira legortigaz, baña gustijak udearen amajian edo ariña-go ezereztuten doiazela ikusten doguz. Lorak baizen poliki eta afoputz efi onetan agertu jaku idazle bafi bat, asko poztuten naz bere agerkeriagaz; ongi etofia izan zaitezala, ¿baña, lora ofen antzera polikeri eta afokeri lafeigaz ez ete zara agertu, legortiar ta neguko izotz gogofari arpegi emoteko?

Diñozu idazkifaren azikeran txarto dabilenari afika egin, eta ez ufonetik ufetik baño; ba orain diñotzut nik lenengo afikadia zeuk irebazi dozula, ¿atsegin ete jatzu zeuri emotia? Nire ustez txarto ta oker dabilena ariñago arteztu leike, ondo esan eta egiñagaz.

«Txar egiten dabenari on egin» auda Josu'ren legea ta guk abertzaliok, lege au zainduten dogun lez, eusten badogu ezgara onen jafaitzaliak; eta Josu'ren jafaitzalia ez dana ez da abertzalia. Ta zuk «Amabiko» austen dozu Josu'ren legia, ofegaitik etzara benetako abertzalia.

«Noberen buruarik gorralpenik ez eman» diño aita onek, zuk lafegi goralduten dozu; ni deun izateko asko bear dot baña zeure deuntasuna ikusiña, gure ertxadonatik len egon zana ikaz egin dau zerura... ta aren utza betetako zeu izango zara egokia; Len Matalen jaijak ospatzen genduzan ¿orain zeintzuk egingo ete doguz? zeuk ba agertuko dozu burua; ia ba ibili biskor zaindari barik ondo ezgagozalako. ¿Ikusten dozu zeure lepua? ezetz uste dot, ba orduan beste batzun esanian egon biar, orduan deun lekuan paretan zarianian ¿zeu gaitik zer esango ete dabe? arotz moskortiagaitik baño txafaguak esan gura leuke jeh!

Ilaren 30 gafeneko nire idazkiak asko minduten zaitu ¿Txingafen battek ikutu deutzu ala? ainbestian etetako?

Zer esango ete daustazu ba «Amabiko» utoz aufetik ze izan zan? nik baño obeto ete dakizu ala bertan egon ziñan nire idazkija guzufezkua zala esateko? Idazkijaz efatu dozuna zeu izan zara ni barik, zuk ezdakiluzalako esan dotzueña baño jah! Amabiko bialdun artian be amabitik bat Josu saldu ebana izan zan, bialdun artian ori egin ezkerio gizon makalen artian batak bestia saldutia ez da afitezkoa. Gaurko egunian asko daukoguz aufian ondo esan; eta atzian salduten gaituenak, Judasek Josu saldu eban eran; eta origaitik zuk salduitiagaz etxat mirerik egiten, baña bai nire idazkija guzurtetiagaz, da gero kontuz olakorik...

Agertu jakuzanak.

Gudariatik etofita emen ikusi doguz Gerekagoitia'tar Justa da Gandarias'tar Balendin.

Gazteizera juan da Albizu'tar Gabirel. Ondo ibili toki ofetan eta gomutau gugaz eta abertzale moduan ibili; baña ezdakik... bein oneri agur egin eskero, amaren magaletik ufintxu zagoz asko gomutetako; jolas garbijak emen ziran baña... or Araba aldian ¿zelakuak gastifnez makufez andikuak ezta?

Urile'ko astelena.

Astelen gustijetan be bai baña, onek Urile'ko astelenok entzute andija dauke batez ere askenenguak, eguraldi txafak bildurtu barik len aitatuko astelen ofetan amaikatxu

ixan giñan Gernika ofetan ¿eta zetan senar emaste bila? orixe nik ez dakit baña bai gure efetik polito ibili ziralala biñekuak «parejas», ufijan juua da semendian etofi askok egin ei -eban... ilabete Gernikan au dok ona!

Eskon-deijak.

Eskon-deijak amaituta dago Legafa'tar Josu Intxaufeta basoetxeke neskatilagaz. Zorionak.

ALBIZ EROTAKO

Judas'en kontu luziak baño, efesoe argi ta laburak maiteago dauz «Ekin'ek».

Gatika.

Jai ospetsuak izan doguz iru-ufuna egiñaz, igaro dan igandian amaitu zan jai au. Josu-Efegre eguna alaituaz. Jaunartze ospetsuak izan dira, gizon, emakume ta uña asko auferatu ziran Jauna artzera. Aita Murgoitioz itzaldi guztiz edefak egin dauskuz iru egunotan.

Egualdiak.

Ez dago esan beafik zelakuak diran aspaldikoak, euritsuak askontzako kaltegiak, beste askontzako onak dira, esaterako, efotarientzat ez dira txafak, orain arto asko ta ura ugari, nor leitiken efotari; baña gure izenagaz geratu bear eta geure lantxuari ekin bear, artoa yan gura badogu, eta pozik, Jaunari eskefak, lan ori ugaritxu dogunok.

Zer esan gitxi.

Aspalditxuan erbestetute ibili nazalako, baña bialtuko dogu zer esan, besterik ezpada esango deusagu zeozertxu «Eyolari»ri edo. Poztu naz asko, gomutau nozulako; eskefik asko mila bidar: euntzaren bekekofea ordua.

Idazti gitxi bialdu dodaz

Bat berez, ondo esateko, Bost ilabete osoak dira Egia autortuteko.

Lotsa andia daukat nik orain

Bafiro idatziteko, Alditxu asko igaro da ta Gauzonik ez dot egingo.

Azketsi dauzu Eyolari zuk

Parkatu beiti betiko, Azute iñoz idaztiokaz Enozu ni aurkituko.

Alper samafa befi izan naz,

Egi utza esateko, Baña zu lako zintzo fin fiñak Badoguz idatziteko.

Gauze bat orain esan bear dautzut

Aditu gura badozu: Ezetz esanaz amaitukozu, Traturik nai ezpadozu,

Mutil zar batzuk doguz guk emen

Komentziririk bagarik, Yakin gurean aurkitzen dira Ete dan or neska zafik.

Gixajo andioz emen daukoguz

Triste ta bakar bakafik, Ezkondu laster eingo leitikez Iñundik bada erarik.

Geyago enua luzetu egiten

Azketsi zuk, Eyolari, Zure asafea ikusi ez daidan Aurkituten naz ni lafi.

Geyago enua luzetu egiten

Ta oratu neure lanari; Es aztu bada, esayozue Orko neska zar danari.

GAARTE

Beñiz.

Jazokun bat.

Igaro dan asteke egun baten, egualdi ona eguala-ta, ibiltaldi txiki bat egitera urten neban, goxian-goxetik, efi onetako basoetxe batsuetatik ziar, eta onetariko baten aufian itufi eder bat dago-ta, itufi onetan nire begijak yazokunik bafegafijena ikustera eldu ziran. Kantin andi bat egun andra andi baten aufian, lautik iru inguru esne eukazan bafuban, eta nik egun

onak emon ostian jafaitu neutsan neure ibiltaldi edefari; baña enitzan asetu aregaz bakafik, ba goguak dei -egiten eustan ontsi edo kantin aura itufi aren ondun ikustiak, eta igeskada baten bitartez estafdu nintzan sasi batsuen ostera, ta, andra ona etxerantza asi zanian ni be sasi ostetik urten eta ibiltaldiari amaya emon baneutso lez, etxeruntz bidia artu neban; eta alkafen ondora giñenian, nun ikusten doten kantin andija esne zuriz beteta eroiala andra galant arek. Alkafi begira ta, itz bage gelditu giñan bitsuok, ni itufi eder artan, ure baño besterik etofi ezda. ontzija esnez beteta ikustiagaz, eta andra on a nik egunero egiten eban esne-gintza ikustiagaz.

¿Nor elitzateke itz barik geldituko? Artu goguan; esne a saltzeko zan.

«Euzkadi»ko izparkari jaunari.

Agur mutil; aspaldi ontan lotaldi galantak egiten ditukala esan geinkek gure eguneroko kutun ofetan-izpafik txikijenik be etsuan irakurten da. ¿Ze jazoten jak ba? Efitik kanpora ala? Izpafik ez ala? Bialdu ta argitaldu ez? Itxartu adi mutil, itxartu; lo egiteko Euzkadi egun bafekuetan aurkitzen dok-eta.

Biar bada; oran oitura dagola ta udal gizon bafi edo «gestoretzat» burue erakusten asi biarkot neuk be, ba Bizkai gustiko abertzale nagustasuna dagon udal-etxetan egiten badabe Mundaka'n egin daben lez, biar izen aundije eukiko dogu Bizkai gustijan, eta ni be Munitibar' erako edo biar baneu eskintzen naz gure urifneko adiskide agintari dan Amilibia jaunari.

B. EDO B.

Natxitu.

Egualdi euritsuak doguz aspaldijon, garbitazunen premia be eidago egaletan, ta defigofekua eida ori, ba Deun Martin'en udatxua ezpajatorku oso be-oso garbituko gaitu ta kitu; Emen izan bei ujol andijak dabiltzazala aspaldijon, ze, Kurtze-gane be berton badago be aspaldijan estogu EKIN'en ikusten, da. Urpian ez dot uste dogonik, dirautsonez ondiok bizi eida, ta gañera ez oian-be, osuntzun baiño, poztute naiz. «Ur gozon» zaratarik ezda, lur nafa asko egondira-ta bear bada lurpian gelditukozaa, dirautzanez ur-gozoko itzazotik ur garbi edefa ei doa-ta. Ondo da, ofen premiña bago; da gure Musturtxu nun dabil-be? Gixakua, kontixu juanda lapatzara sarbotan, ta apa-rejarik, atontzen, ezekijalez ofetan ebilela etofiko jakon olatu zapafaren bat, buzti-buzti eginda, ta lotzatuta lapatzen gelditu biar izan dau, abesutuen arako antxiñako abesti gozua gure Andra Mariari.

Ama Birgiña sikatuixu sikatuten bozu oben gozu nok eran dau emengo ura aingerutxu batek zenbat bidar iru bidar

Jesus mila bidar

Zer diñozu Lili Efeekatxu oferi? niri ezin aitzu, zuri be.... Zafi lapatzara doian afatzaliak diño, efesturik-be estagola iñun da kontixu itxasoz Prantzijara juan gozala emengo sokilen bildufez, edo biar bada arek-be entzungo eban «a que benir aquel tonto aqui? biar bada kalabazen bat edo beste be emon egingo eutsezan, saso onetan arek be balkoietan egoten dira-ta, ta obeto egin dau igestia afikarak artu orduko, onenbeztegez bizi bada zarata egingo dau. Olan bada auxe konsejue emon biar dautsat, biar bada nik baiño obeto jakingodan baiña... kontuz ibili ari arako neskatilakaz, korbata-dunakaz badabiltzak amaldunak bioguz-da.

AITOR ETXE-ZALE

Ziarotza.

Eleizkixunak.

Domu Santu egunian oso eleizkixun edefak egin ziran. Goizean Jaunartzea ta afatsaldian beste urtietan lez noturno ta txonitz edefa, Karmeldar Aita Leon lekaideak argi ta garbi ipiñi eban Garbitokiko arimen egokerea azalduaz.

Agur.

Befiatua'ra juan dira bizi izatera gure efitar zintzoak diran; Kaltzakorta'tar Iginio, bere iru seme-alabakaz. Zorionak eta urte on asko opa dautseguz efi ofetan.

Dabiltzanak.

Ameriketari amabi urte eginda etofi da Mendibe'tar Julian.

Gure artian egun batzuk igarota da bere efira (Abadiño'ra) Urizar'tar Agurtzane.

Gudaritza Gazteiz'en beteta etofi da Jayo'tar Sebastian. Zorionak gustiari.

Eskontza.

Lengo egunian ezkondu zan, Zelaya'tar Joseba Aulestia'ko neskatila bategaz. Zorionak ta luzaro alkafegaz zorijontsu bizitzia opa deutsegu.

DONE

JOSE LUIS ABAITUA'ren

GABEUKAZ ETA BITXI-TEGIA

Ormako, sakeleko ta eskubitufeko gabeukatzik onenak zidafezko naiz ufegofizkoak. Deun gustien domiñak, norberak gura dauzan era-erakoz, Apurtuak osotu ta bafiztuen dira.

Postas 28 - Gaztelu - Vitoria.

Idazketxe-aufean = Frente a Correos

Ubide.

Eri

onetako Bilbo'n dagozan neskame edo kriedak il onen ogeta amafean bakar-eguna edo efetiroa dauke Esklabetako «lexan. Poz-pozik dagoz euren gurasoak.

Usoa

ugari ibili da egunotan gure gañean, kerispe aundia edo ia-ia ilundu eguna egiten izan dabe ta eiztariak lo ta lo.

Aldatu

da lengo etetik Afaihora gure lagun maitea dan Mendizabal, eta bizileku bafi ofetan urte askoko osasun-bakea opa dautsagu biotzez.

San Juan

txaide edo kaleko Ziriako zanaren etxera doa biziten Mexiko ta ez dakigu nundik gira-bira luze bat egin ondoren gure arteratu dan Efamona-txo.

Barzelona'n.

egun batzuk igaro ondoren etofi da Mintegi'tar Sebasten.

Buenos Aires'runtz.

Ibargutxi'tar Yosuk urten dau lengo egueanean. Zorionak ta laster etofi, ene adiskide.

Kastro'ra.

yoan da Landaxuela ta Agife'tar dan neskatotxo bere ikastaroa egiten.

Zeanuri'koai

esan bear dautsague, asto edefa erosi ebana Josta Deuneko elizaña ez zala, beste bat baño. ¿..San Lorentzon ez daukazue eleiz zañik...? Axe izango dalakoan gara. Gixon txikitxo, gaste samafa zan, astoa bedafetako zala ta, batsuetan plazara yoateko be bai zala esan eban. Astoa ordaindu eban amasei ogerleko, amafeko ta euneko papel bat eta bes-ge ogerleko baten albokea egin ehen ¿..Nor ete zan ba...? Jakin egizue al dozue-ta. Asto bafirik ez yatzeu agertu ofa...? Emeko ugezabak diño: Niri ordaindu eustan-da, apofau daitela eroan ebana.

SASPIKIKO SAQUE